

V. ERANSKINA

ERDI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLORAKO SARBIDE-PROBAK EBALUATZEKO ERREFERENTEAK

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA	
Gaitasun honek xedetzat du hizkuntzaren erabilpena, bai ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitze eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa ere.	
Gaitasunaren alderdi hauek aztertuko ditu probak	
Pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak adierazteko trebetasuna; iritzi kritikoak eta etikoak, eta ideiak sortzeko trebetasuna; jakintza egituratzeko eta diskurtsoari, norberaren ekintzei eta egitekoei koherentzia eta kohesioa emateko trebetasuna.	
Askotariko komunikazio- eta sorkuntza-asmoko testu-motak bilatzen, ulertzen, osatzen eta erabiltzen laguntzen duen trebetasuna.	
Hizkuntza-komunikazioko ekintzetako, elkarrizketetako, irakurketetako, idazketetako eta abarreko xedeak eta helburuak aukeratzeko eta aplikatzeko trebetasuna.	
Hizkuntzari eta haren erabilera-arauei buruzko hausnarketarako trebetasuna; horrek berariaz eskatzen du hizkuntza behaketarako eta azterketarako tresnatzat hartzeko ahalmena izatea.	
«GAZTELANIA ETA LITERATURA EDO EUSKARA ETA LITERATURA» IRAKASGAIA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	
1	<p>Informazio jakinak atera eta egiaztatu eta horien helburua identifikatu, ideia orokorra eta bigarren mailako ideiak ondorioztatu, eta informazioa nola antolatuta dagoen bereizi.</p> <p>Gaitasun hauek gaitasun jakiteko ezaugarriak dira irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Informazio zehatza ateratzeko, ohikoak ez diren hitzak erabilia adierazitakoetatik. – Zenbait iturritako informazioa egiaztatze. – Testu baten gai nagusia eta bigarren mailako gaiak identifikatzeko; gainera, ez ditu espliziturik dauden enuntziatuetan soilik ezagutuko, testuan errepikatzen diren informazioetatik ere ondorioztatu beharko ditu. – Informazio baten eta adierazpen baten elementuen arteko lotura ezartzeko. – Ideiak antolatzeko teknikak aplikatzeko. – Ezaugarri semantikoak, lexikoak, sintaktikoak eta grafikoak erabiltzen jakiteko eta horiez baliatzeko.
2	<p>Narrazioa egin, azaldu, esplikatuz, laburbildu eta iruzkinak egin, ideiak garbi antolatuta; eta enuntziatuak lotu eta kohesionatutako sekuentzia linealak sortu; betiere, gramatika- eta ortografia-arauek errespetatuz.</p> <p>Honetarako gaitasun jakiteko ezaugarriak dira irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Testuak idazteko, zuzen antolatuta eta esaldiak lotuta kohesionatutako sekuentzia lineal batean. – Gertaerak eta bizipenak garbi kontatzeko eta horiei buruzko iruzkinak egiteko, baita bere kabuz testuak sortzeko ere. – Testu baten laburpenak, sintesiak, iruzkinak egiteko eta testu horiek osatzeko; batez ere, azalpen-testuena eta edukia ikastea helburu duten testuena. – Lan-proiektuak azaltzeko eta horien ondorioak jakinarazteko. – Testu idatziak behar bezala aurkezteko, ortografia- eta gramatika-arauek kontuan hartuta. <p>Gomendioak:</p> <p>Gizarteko, politikako edo kulturako gaur egungo gertaerei buruzkoa izan behar du probak, zenbait ikuspuntu eta horienganako jarrera desberdinak onartzen dituztenak.</p>

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA	
3	Hizkuntzari buruzko ezaguerak eta hizkuntzaren erabilera-arauak aplikatu, testu idatziak ulertzeko sortzen diren arazoei aurre egiteko eta testu horiek osatzeko eta berrikusteko. Hauetarako gai den jakiteko ezarri da: – Hizkuntzari buruzko ezaguerak eta haren erabilera-arauak erabiltzeko, lotura baitu testuak ulertzearekin, osatzearekin eta berrikustearekin.
4	Hizkuntza erabili ahal izateko, beharrezko hizkuntza-terminologia jakin. Honetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea: – Oinarrizko terminologia jakiteko eta erabiltzeko, gramatika-jardueretan, azalpenak eta argibideak jarraitu ahal izateko.

MATEMATIKA-GAITASUNA.	
Zenbakiak, horien oinarrizko eragiketak, matematika-sinboloak eta matematikako adierazpen- eta arrazoitze-moduak erabiltzeko eta lotzeko trebetasuna da, bai informazioa sortzeko eta interpretatzeko, bai errealitateko alderdi kuantitatibo eta espazialei buruzko ezaguera areagotzeko, bai eguneroko bizitzako eta laneko arazoei irtenbidea emateko.	
Gaitasunaren alderdi hauek aztertuko ditu probak	
Informazioa, datuak eta argudioak argi eta zehatz interpretatzeko eta adierazteko trebetasuna.	
Oinarrizko matematika-elementuak (askotariko zenbakiak, neurriak, sinboloak, elementu geometrikoak, etab.) ezagutzeko trebetasuna, eta horiek eguneroko bizitzako egoera erreal edo simulatuetan erabiltzeko, bai eta arrazoitze-prozesuak abiaraztekoa ere, arazoak konpontzeko edo informazioa lortzeko.	
Matematika-elementuak eta -arrazoibideak erabiltzeko trebetasuna, behar izatekotan, eguneroko bizitzako arazoei aurre egiteko. Horrenbestez, egoera horiek identifikatzeko, problemak ebazteko estrategiak aplikatzeko, eta, eskura dagoen informazioa oinarri hartuta, errealitatea kalkulatzeko, adierazteko eta interpretatzeko teknika egokiak aukeratzeko ahalmena.	
Arrazoibide matematikoak ulertzeko eta matematika-hizkuntzan adierazteko eta komunikatzeko trebetasuna, laguntza-tresna egokiak erabilita, eta matematika-jakintza beste jakintza-mota batzuekin batera erabilita, eguneroko bizitzan ager daitezkeen askotariko egoera konplexuei irtenbide egokia emateko.	
Zenbakiak, horien oinarrizko eragiketak, matematika-sinboloak eta matematikako adierazpen- eta arrazoitze-moduak erabiltzeko eta lotzeko trebetasuna, bai informazioa sortzeko eta interpretatzeko, bai errealitateko alderdi kuantitatibo eta espazialei buruzko ezaguera areagotzeko, bai eguneroko bizitzako eta laneko arazoak konpontzeko.	
Aldagaien arteko erlazioak erabiltzeko eta haiek taulen, grafikoan eta eredu matematikoen bitartez adierazteko trebetasuna, ekonomiarekin, gizartearekin edo naturarekin zerikusia duten fenomenoak deskribatu, interpretatu, aurreikusi eta azaldu ahal izateko. Eduki horiek egoera bat adierazteko dauden moduekin lotura dute: ahoz, zenbakiz, geometria bidez edo hitzez-hitzezko adierazpen baten bidez baita adierazpen bat beste hizkuntza batera itzultzeko moduekin ere. Halaber, funtzio-mota jakin batzuen ezaugarriak bereizteko gai izatea lortu nahi da, benetako egoeren ereduak ezartzeko helburuz.	
Estatistika eta ausazko fenomeno errazak erabiltzeko trebetasuna, esperientziaren eta estatistika-datuak (taulak eta grafikoak) erabilita; horrela, estatistikaren bidez emandako informazio ez-osoak eta gehiegikeriak, eta, bestalde, gezurrak, jarrera kritikoa dutela aztertzeko.	
«MATEMATIKA» IRAKASGAIA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	
1	<p>Zenbaki- eta eragiketa-motak eta haien propietateak erabili, informazioa biltzeko, aldatzeko eta trukatzeko, eta, horrela, eguneroko bizitzako problemak ebazteko.</p> <p>Gaitasun hauetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Kalkuluak egiteko modu egokia erabiltzeko: buruz, idatziz edo kalkulagailua erabilita; eta lortutako emaitzak koherenteak eta zehatzak diren ebakitzeko. – Zenbakiak egoerak eskatzen duen moduan adierazteko: hamartarrak, zatikiak eta idazkera zientifikoan. – Zenbaki-motak alderatzeko, ordenatzeko eta adierazteko: osoak eta arrazionalak. – Zenbaki osoen eta arrazionalen bidez adierazitako informazioa interpretatzeko. – Zenbaki osoko eta hamartarreko eragiketa aritmetikoak eguneroko testuinguruetan aplikatzen jakiteko.
2	<p>Enuntziatu batean emandako propietatea edo erlazioa adierazi, hizkuntza algebrakoa erabilita.</p> <p>Hauetarako gai den jakiteko ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Benetako egoera bat dagokion matematika-hizkuntzara aldatzeko, hura ulertu ahal izateko eta informazio gehiago lortu ahal izateko.

MATEMATIKA-GAITASUNA.

3	<p>Lehen mailako eta bigarren mailako ekuazioak eta ezezaguneko ekuazioak planteatzea eta ebaztea eskatzen duten eguneroko bizitzako problemak ebazti.</p> <p>Honetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea: – Matematika-estrategiak eta -tresnak erabiltzeko, arazoei irtenbidea eman ahal izateko hainbat testuingurutan.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Eguneroko bizitzako egoera bat emanda, problema bat planteatzeko eta matematika-ezaguerak aplikatzeko, hura ebazti ahal izateko. – Egoera problematikoei aurre egiteko, ekuazioak eta proportzio zuzenak eta alderantzizkoak planteatuta eta haiek ebaztita. – Interesekin, deskontuekin, errekarquekin, epeka ordaintzeko erosketekin eta antzekoekin zerikusia duten arazoak konpontzeko.
4	<p>Irudi lauen perimetroa, azalera eta angeluak, eta gorputz geometrikoen bolumenak iritzira kalkulatu eta kalkulatu, neurri-unitate egokia erabilia.</p> <p>Gaitasun hauetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gorputz geometrikoen adierazpen lauk lortzeko eta erabiltzeko: prismak, piramideak, zilindroak, konoak, esferak eta poliedro erregularrak. – Geometria-nozioak eguneroko bizitzara aplikatzeko, espazioak eta bolumenak neurtuta. – Eguneroko egoeretan, azalerak eta bolumenak iritzira kalkulatzeko eta horiek aplikatzeko. – Irudi lauk (zuzenkien bidez eta zirkunferentzia-arkuen bidez zehaztuta) eta gorputz geometrikoen bolumenak (prismak, piramideak, zilindroak, konoak eta esferak) kalkulatzeko formulak identifikatzeko eta aplikatzeko, oinarrizko irudiak emanda eta, horrela, inguruko irudi lauen azalera kalkulatu ahal izateko.
5	<p>Estatistika-informazioa osatu eta hura interpretatu, erabilitako taulak eta grafikoak egokiak diren kontuan hartuta; eta parametroak garrantzitsuak diren edo ez aztertu.</p> <p>Hauetarako gai den jakiteko ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Estatistiketan ohikoak diren kontzeptuek ematen duten informazioa ateratzeko: biztanleria, lagina, batez besteko aritmetikoa, moda. Mediana eta barreiadura. – Informazio hori guztia interpretatzeko; hala, eguneroko gertaerei buruzko irizpideak sortu eta erabakiak hartzeko moduan izateko.

INGURUNE FISIKOA EZAGUTZEKO ETA HAREKIN ELKARREKINTZAN JARDUTEKO GAITASUNA

Ingurune fisikoarekiko elkarreraginei erreparatzen die gaitasun honek, ingurune fisikoaren natura-alderdiei zein gizakien ekintzaren ondoriozko alderdiei. Hala, gaitasun honek aukera ematen du gertakariak ulertzeko, gertakarien ondorioen aurreikuspenak egiteko, eta norberaren eta gainerako pertsonen eta izaki bizidunen baldintzak hobetzeko eta kontserbatzeko jarduerak egiteko. Azken finean, gaitasun honek askotariko trebetasunak izatea eskatzen du, egokitasunez, autonomiaz eta ekimenez jarduteko bizitzako eta jakintzako askotariko eremutan (osasuna, ekoizpen-jardura, kontsumoa, zientzia, teknologia-prozesuak, etab.), eta mundua interpretatzeko. Horrek guztiak hau eskatzen du: gertakariak jakintza zientifikoaren eremu anitzen ikuspegitik aztertze behar diren oinarriko kontzeptuak eta printzipioak aplikatzea.

Gaitasunaren alderdi hauek aztertuko ditu probak

Bizitzaren eta giza jardueren euskarri den espazio fisiko ezagutzen duen, bai eskala handian, bai gertuko ingurunean, eta bere baitan biltzen dituen inguruko espazioarekiko elkarrekintzarako trebetasuna; hala nola, espazioan mugitzeko eta espazioko objektuekin eta objektu horiekiko kokapenarekin lotutako arazoak konpontzeko trebetasuna.

Ingurunean pertsonen presentziak, asentamenduak eta jarduerak, pertsonen zer aldaketa egiten dituzten ingurunean, eta aldaketa horien ondorioz zer paisaia sortzen diren dakien. Horrekin batera, ikasleak ikusi behar du garrantzi handikoa dela garapenaren onurak gizaki guztiengana helaraztea, natura-baliabideen kontserbazioa bermatzea, eta mundu-mailako elkartasunari eta belaunaldien arteko elkartasunari eustea.

Giza gorputzaren, naturaren eta gizonek nahiz emakumeek naturarekin duten hartu-emana nolako den jakin behar du; izan ere, bide ematen du modu arrazionalen azaltzeko zer-nolako ondorioak dituzten askotariko bizimoduek, eta, halaber, aukera ematen du bizitza fisiko eta intelektual osasungarria izateko, natura- eta gizarte-ingurune osasungarrian.

Ingurune fisiko ulertzen eta hari buruzko erabakiak hartzen laguntzen duten elementuak erabiltzen dituen; baita giza jarduerak ingurumenean, osasunean eta pertsonen bizi-kalitatean eragiten dituen aldaketei buruzko erabakiak hartzen dituen ere.

Irtenbide teknikoak planifikatzearekin eta horien erabilerarekin zerikusia duten trebetasunak, eguneroko bizitzako eta lan-munduko premiei erantzuteko, ekonomia- eta eraginkortasun-printzipioei jarraituz.

Pentsamendu zientifikoa eta teknikoak garatzeko eta aplikatzeko trebetasunak, jasotzen den informazioa interpretatzeko, aurreikuspenak egiteko eta erabakiak ekimenez eta autonomia pertsonalez hartzeko bide ematen baitute; izan ere, eremu zientifiko eta teknologikoko aurrerapenak eragin erabakigarria dute pertsonen, gizartearen eta naturaren bizi-baldintzetan.

«NATUR ZIENTZIAK» IRAKASGAIA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	
1	<p>Energiaren kontzeptu kualitatiboa erabili, inguruko aldaketetan zer zeregin duen azaltzeko. Horrez gain, energia berriztagarrien eta ez berriztagarrien iturriek gizartean eta ingurumenean duten garrantzia eta ondorioak ezagutu.</p> <p>Hauetarako gai den jakiteko ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Energia kontzeptua eta hark aldaketak eragiteko ahalmena lotzeko, kausa eta efektuaren arteko lotura kontuan hartuta. – Energia berriztagarrien moduak eta iturriak eta ez berriztagarriena hautemateko, baita horien abantailak eta desabantailak eta horiek lortzeko, garraiatzeko eta erabiltzeko eragiten dituzten arazo nagusiak zein diren jakiteko. – Energiaren kontserbazio-printzipioa hautemateko eta hura zenbait adibide errazetan aplikatzeko. – Energia aurrezteak eta energia garbiak erabiltzeko etorkizun iraunkorra lortzeko duten garrantzia ulertzeko.
2	<p>Problema errazak ebatzi, tenperaturaren eta haren neurketaren, oreka eta desoreka termikoaren, beroak gorputzetan dituen efektuen eta hura barreiatzeko moduaren kontzeptuei buruzko ezagutzak erabiliz.</p> <p>Honetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Beroaren garrantzia eta haren aplikazioak ulertzeko. – Fenomeno termikoak aztertzean, beroa eta tenperatura bereizteko.
3	<p>Izaki bizidunen bizi-funtzioekin zerikusia duten alderdiak interpretatu, eta nutrizio-, harreman- eta ugalketa-prozesuetan aldagai jakinek duten efektua interpretatu.</p> <p>Gaitasun hauetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Izaki bizidunen bizi-funtzioak hautemateko eta haien arteko lotura ezartzeko. – Izaki autotrofoen eta heterotrofoen elikaduretan dauden aldeak identifikatzeko. – Ugalketa-motak eta haien ezaugarriak hautemateko. – Harreman-funtzioan esku hartzen duten oinarrizko elementuak identifikatzeko. – Ekosistema baten osagaiak eta horien arteko harremanak identifikatzeko. – Izaki bizidunen prozesuetan gertatzen diren aldaketak eta Lurraren dinamika azaltzeko, erraz ikusten diren ondorioak eta guzti.
4	<p>Alderdi fisikoek, psikologikoek eta sozialek osasunean eragina dutela jakin, eta bizimoduak eta zientzia biomedikoen ekarpenak garrantzia dutela baloratu, gaixotasunak prebenitzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko.</p> <p>Hauetarako gai den jakiteko ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Organismoak dituen funtzioen arteko lotura ezartzeko, eta osasunean eragin handien duten faktoreak hautemateko, bizimoduak, esaterako. – Gaixotasunari aurre egiteko gorputzak dituen defentsa-mekanismoekin zerikusia duten kontzeptuak hautemateko. – Osasunarekin eta gaixotasunaren prebentzioarekin zerikusia duten kontzeptuak hautemateko, eta azken horiek osasunean duten garrantzia balioesteko: ugalketa, sexualitatea, ohitura toxikoak, ariketa fisikoa eta elikadura.

«TEKNOLOGIA» IRAKASGAIA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	
5	<p>Material teknikoen oinarrizko ezaugarriak eta haien merkataritza-aukerak deskribatu: zura, metalak, plastikozko materialak, zeramikazkoak eta harrizkoak; eta horiek guztiak ohiko erabileretan identifikatu.</p> <p>Honetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none">– Materialen propietate mekanikoak, elektrikoak eta termikoak hautemateko.– Propietate horien eta ohiko objektuak egiteko materialen aplikazioaren arteko lotura ezartzeko.
6	<p>Objektu eta sistema tekniko errazak adierazi bistak eta perspektibak erabilita, eta oinarrizko normalizazio-irizpideak aplikatuta.</p> <p>Gaitasun hauetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none">– Objektu errazak proiektzio diedrikoan adierazteko: aurretiko bista, goitiko bista eta profila. Baita horiek hiru dimentsiotan adierazteko ere, esku hutsezko marrazketa eginez, zein marrazketa-tresnak erabiliz, araututako akotazio- eta eskala-irizpideei jarraiki.
7	<p>Zirkuitu elektrikoak adierazi, benetako egoera bat emanda, eta ezaugarriak behar bezala adierazita.</p> <p>Hauetarako gai den jakiteko ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none">– Sinbolo egokiak erabilita hauek adierazteko: tentsioa, korrontea, erresistentzia, potentzia eta energia elektrikoa.– Neurriari eta magnitudeen kalkuluari buruzko kontzeptuak eta printzipioak erabiltzeko.

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA	
<p>Gaitasun honek aukera ematen dio ikasleari zer gizarte-errealitate bizi duen ulertzeko, lankidetzajarduerak egiteko, bizikidetzajarduerak egiteko, bizikidetzajarduerak egiteko, eta herritartasun demokratikoa gizarte anitz batean erabiltzeko. Halaber, gizarte hobetzen laguntzeko konpromisoa hartzeko aukera emango dio. Gaitasun honek askotariko jakintzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu, beharrezkoak direnak ikasleak gizartean parte har dezan, erabakiak har ditzan, egoera jakinetan nola jokatu hauta dezan eta egindako hautuen ardura har dezan.</p>	
Gaitasunaren alderdi hauek aztertuko ditu probak	
<p>Egungo gizartearen ezaugarriak ulertu behar ditu ikasleak, gero eta anitzagoak direla eta bilakaera-prozesuak bizi dituztela. Horrez gain, munduan zeharreko kulturek gizateriaren bilakaerari eta aurrerabideari egin dioten ekarpena balioetsi behar du ikasleak, eta gizarteko partaide dela sentitu behar du.</p>	
<p>Kolektiboen arteko desberdintasunak balioesteko trebetasuna, eta haien eta bereziki, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko eskubideberdintasuna onartzeko gaitasuna.</p>	
<p>Herritartasun aktibo eta integratzaileko jarrera izatea ikasleak; izan ere, gizarte demokratikoei eusten dieten balioak, oinarriak, antolakuntza-moduak eta funtzionamendua nolako den eta horiek ulertzea eskatzen baitu.</p>	
<p>Demokrazia, askatasuna, berdintasuna, elkartzasuna, erantzukidetasuna, partaidetza eta herritartasunaren kontzeptuei buruzko hausnarketa kritikoa egiteko trebetasuna, bereziki erreparatzen diola nazioarteko hitzarmenetan, Espainiako Konstituzioan eta autonomietako legedietan jasotzen diren eskubideei eta betebeharreri; halaber, horiek erakundeek nola aplikatzen dituzten ere erreparatuko dio ikasleak.</p>	
«GIZARTE-ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA» IRAKASGAIA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	
1	<p>Mapa batean adierazten den informazioaren edukia interpretatu.</p> <p>Honetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Mapa batean tokiak edo espazioak kokatzen jakiteko. – Koordinatu geografikokoak/datuak erabiltzeko. – Legenda eta sinbologiaren bitartez adierazitako espazioari buruzko informazioa lortzeko.
2	<p>Munduko, Euskal Herriko, Europako eta Espainiako ingurune fisikoa osatzen duten oinarriko elementuak (ozeanoak eta itsasoak, kontinenteak, erliebe-unitateak eta ibaiak) mapa batean kokatu, eta espazio jakin batean nagusi diren ezaugarriak hauteman.</p> <p>Gaitasun hauetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Munduko, Europako eta Espainiako mapa fisikoen oinarriko elementuak jakiteko. – Mapek adierazten dituzten elementuak espazioan kokatzeko, eta lurralde bakoitzean nagusitzen diren elementuak adierazteko.
3	<p>Planetako natura-ingurune nagusiak osatzen dituzten ezaugarri fisiko nabarmenenak (erliebea, klima, urak eta elementu biogeografikoak) alderatu, bereziki Euskal Herrikoak; halaber, horiek espazioan kokatu eta giza taldeei eskaintzen dizkieten aukerekin lotura ezarri.</p> <p>Hauetarako gai den jakiteko ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko natura-ingurune nagusiak espazioan hautemateko eta kokatzeko. – Beren artean desberdinak diren paisaia geografikoei osatzen dituzten ezaugarri fisiko nagusiak oinarri hartuta, natura-ingurune nagusien ezaugarriak zehazteko eta horiek bereizteko, elkarrekintzaren arabera. – Natura inguruneak eta horiek eskaintzen dituzten bizimodu-aukerak lotzeko.

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA	
4	<p>Giza jarduerak natura-ingurunean eragiten dituen inpaktuen hainbat adibide identifikatu eta horiek azaldu, beren arteko kausak eta efektuak aztertu, eta inpaktu horiek gutxitzeko beharko liratekeen neurriak eta jarrerak adierazi.</p> <p>Honetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Zenbait ingurumen-arazo larri hautemateko, batez ere natura-ingurunearen ezaugarriekin lotura zuzena dutenak (ur-eskasia, basoen galera, klima aldaketa, etab.). – Ingurumen-arazo nagusien kausak eta horiek eragin ditzaketen efektuak lotzeko; halaber, horiek hobetze aldera —zientziaren, teknologiaren, kontsumo arduratsuaren... bitartez— gauza daitezkeen ekintzak adierazteko. – Erliebearen, uren, klimatologiaren, paisaia-unitateen... ezaugarrien arteko lotura ezartzeko, eskualde mailan zein maila globalagoan; halaber, giza ekintzak eragiten dituen arazo jakinak zein diren adierazteko.
5	<p>Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko eremu geoekonomikoak eta kulturalak identifikatu.</p> <p>Gaitasun hauetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Euskadiko eta Estatu espainiarreko lurralde-antolakuntza, egituraren oinarriko alderdiak eta politika- eta administrazio-antolakuntza nolakoak den jakiteko; eta Europar Batasuneko kide dela jakiteko. – Espainiako autonomia-erkidegoak eta horien hiriburuak nor bere mapa politikoan kokatzeko. – Espainiako lurralde-ordenamendua zuzentzen duten erakundeak identifikatzeko, eta, halaber, haien partaidetza Europar Batasunean.
6	<p>Ekonomia-jarduerak eta norbanakoaren portaerak eragiten dituzten ingurumen-ondorioak islatzen dituen kasuren bat deskribatu.</p> <p>Hauetarako gai den jakiteko ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Garapen iraunkorra bultzatzen duten moduak eta ingurumenerako kaltegarriak diren moduak bereizteko. – Espazioa hartzeak eta ustiatzeak ingurumenean eragin ditzakeen arazoak hautemateko. – Ingurumena babesteko dauden planteamenduak eta politikak zein diren jakiteko. – Ingurumenaren kalitatea hobetze aldera eta garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen duten ekintza eta politika jakinak ezagutzeko.
7	<p>Gizarte-gertakariei buruzko informazioa lortzeko eta beren arteko lotura ezartzeko hainbat iturri erabili (grafikoak, krokisak, gaikako mapak, irudiak, iturri idatziak), eta ateratako ondorioak behar bezala antolatuta eta ulertzeko moduan komunikatu.</p> <p>Honetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Tresna grafikoak eta kartografikoak behar bezala erabiltzeko. – Grafikoak eta gaikako mapak irakurtzeko eta interpretatzeko; horiek komunikabideetan agertzen direnen moduko zailtasuna izango dute edo erraza izango dira.
8	<p>Aldi eta gertaera garrantzitsuak eta prozesu historiko nagusiak denboran eta espazioak kokatu, eta historia-aldia munduan, Euskal Herrian, Espainian eta Europan identifikatu; horretarako, halaber, Historia aztertzeko erabiltzen diren ohiko konbentzioak eta kontzeptuak aplikatu.</p> <p>Gaitasun hauetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Kronologia-etapa eta -aldi nagusiak hautemateko. – Aldibereotasuna- eta aldaketa-nozioak ulertzeko, eta etapa batetik bestera pasatzea eragiten duten uneak eta prozesuak ulertzeko; eta nozio horiek XVIII. mendetik gaurdainoko bilakaera historikoan aplikatzeko.

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA	
9	<p>Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen kausak eta ondorioak identifikatu, beren arteko lotura ezarri eta gertaera sozialak askotariko kausek eragiten dituztela ikasi.</p> <p>Hauetarako gai den jakiteko ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gertaera edo prozesu historiko garrantzitsu batean eragiten duten faktoreak adierazteko. – Gertaera historikoetan esku hartzen duten kausen izaera, beren arteko lotura eta hierarkia hautemateko; eta horiek epe laburrean zein luzean eragiten dituzten ondorioak hautemateko. – Munduan gertatu diren aldaketa handiak eta gatazkak deskribatzeko —garrantzitsuenak, batik bat—, egungo mundua hobeto ulertu ahal izateko. – Gaur egun gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten arazo nagusiak definitzeko, eta horiekiko sentiberatasunezko jarrera erakusteko.
«GIZA ESKUBIDE ETA HERRITARTASUNERAKO HEZKUNTZA» IRAKASGAIA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	
10	<p>Hainbat iturritatik lortutako informazioa zorrotz erabili; ikaslearentzat gertuko eta gaurkotasuna duten gaiak buruzko iritzi arrazoituak azaldu; eta elkartasuna adierazten duten jarrerak erakutsi.</p> <p>Gaitasun hauetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Egungo munduko arazoan sentsibilitatea erakusteko; esate baterako, hauen aurrean: kolektibo kaltetuak, diskriminazio-egoerak, ingurumen-hondamendia, lan-merkatua eta kontsumo-ereduak
11	<p>Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren oinarriko printzipioak identifikatu; eta izatezko eta eskubidezko desberdintasunak hauteman eta horiek gaitzetsi, emakumezkoen eragiten dieten ezberdintasunak bereziki.</p> <p>Gaitasun hauetarako gai den jakiteko ezarria da irizpidea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren oinarria ezagutzeko. – Gaur egun, munduan giza eskubideak urratzen diren ekintzak eta egoerak gertatzen direla jakiteko. – Aniztasuna kultura-aberastasun gisa ulertzeko. – Desberdintasuna gizarte-bidegabekeria gisa ulertzeko.
12	<p>Euskadiko Autonomia Estatutuak eta Espainiako Konstituzioak ezartzen dituzten printzipio demokratikoak eta horiek osatzen dituzten erakunde nagusiak hauteman.</p> <p>Hauetarako gai den jakiteko ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Espainiako sistema politikoaren gobernu-organoen oinarriko alderdiak hautemateko. – Udalerako, autonomietako eta Estatuko zenbait gobernu-organoren antolaketa, funtzioak eta hautaketa-moduak hautemateko. – Horien hautaketan eta kontrolean herritarrei dagokien zeregina hautemateko.